

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2013ko martxoaren 6a. IX. urtea. 2.556. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Udalek salatu dute Espainiako bandera «indarrez» jarriarazi nahi dietela

Tolosaldeko 28 herrietako udal ordezkariak larunbatean ikurrina aldarrikatzeko egingo den manifestazioarekin bat egin dute; 12:00etan Tolosako Trianguloatik abiatuko da

Euskal instituzioetan Espainiako bandera zintzilikatzeko aginduaren atzean, «Euskal Herria mendean hartzeko, eta horrela irudikatzen den estrategia» dagoela esan dute **02**



Tolosaldeko herrietako alkate eta zinegotziak Asteasuko udaletxean iragarri zuten larunbateko manifestazioa. MIKEL IRAOLA

Pariseko epaitegiak Azkarateren helegitea atzera botako du

Tolosarrak Espainiako justiziaren eskariaren aurka borrokan jarraituko du **07**

'La doctrina del Shock' dokumentala, bihar, Tolosan

Kultur etxean izango da Tolosaldeko 15M-k antolatutako jarduerara **06**

Udaberriko denboraldia prest du Alegiako gaztetxeak **07**

Tolosaldeko bost herritan hondakinak atez ate biltzen hasiko dira uda baino lehen

Zizurkil, Amasa-Villabona, Irura, Anoeta eta Alegian atez ateko bilketa sistema jarriko dute martxan; martxoan zehar bilketa modua azaldu eta herritarren ekarpenak jasotzen hasiko dira **03**



Bost udaletako ordezkariak Orendainen egin zuten agerraldia. E. MAIZ



Eskualdeko ia herri guztietako ordezkariak bat egin zuten Espainiako bandera jartzearen aurka. MIKEL IRAOLA

Espainiako bandera jartzearen aurka azaldu dira Tolosaldeko udalak

Datorren larunbatean ikurrina aldarrikatzeke Tolosan egingo den manifestazioarekin bat egin dute hautetsiek

Mikel Iraola Asteasu

Udaletxean Espainiako bandera zintzilikatzeko «inposizioaren» aurka agertu ziren Tolosaldeko 28 herrietako udal ordezkariak, Asteasuan egindako agerraldian.

Eurei aukeratu zieten herritarren nahi eta borondatearen aurka doan agindua dela aldarrikatu zuten udalerrietako ordezkariak: «Gure herritarrek aukeratuak izan ginen eta beraiei zor diegu gure funtzioa. Euren beharrak artikulatu eta gauzatzeko bidean oztopo bat da Espainiako agintariak ezarri duten lege hau. Egin

nahi ez dugun zerbait egitera in-darrez behartu nahi gaituzte».

Otsailaren 14an eskualdeko eragile sozial, politiko eta sindikalek plazaratutako hausnarke-tarekin bat egin zuten ordezkariak, esku artean dutena, «herri gisa dugun arazoa» dela adieraziz. «Ez da arazo instituzional bat, ezta udalean topatu dugun arazo tekniko bat ere».

«Herritarren nahiaren aurka doan oztopo» dela salatu dute herri guztietako ordezkariak

Euskal instituzioetan Espainiako bandera zintzilikatzeko aginduaren atzean, «Euskal Herria mendearen hartzeko, eta horrela irudikatzeke estrategia oso bat dagoela» salatu zuten, eta herritarrei horren inguruan ohartarazi nahi izan zieten: «Ez gara espai-

niarrak, ez eta frantsesak ere, eta guk ordezkatzeko ditugun herritarrei dei egiten diegu hala adieraz dezaten».

Pilar Legarra, Asteasuko alkateak irakurritako testuari, Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Amasa-Villabona, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Zizurkil eta Tolosako alkate eta zinegotziak eman zitoten atxikimendua.

Mobilizazioa deitu dute

Eskualdeko udaletako hautes-tsiekin ordea, «Euskal Herriaren aitortza eta burujabetza lortzeko lan egin, eta euskal herritarren nortasun eta identitate zeinuak sustatzeko konpromisoa» hartzen dutela berretsi zuten. Euskal Herria nazio gisa agertzen den ikurrak babestu eta zabaltzeko neurri zehatzak abian jarriko dituztela ere esan zuten.

Bide horretan, Tolosaldeko eragile sozial, politiko eta sindikalek udaletan aurkeztutako mozioak babestu eta, datorren larunbatean, hilak 9, Tolosan burutuko den manifestazioan parte hartuko dutela baieztatu zuten. Era berean, herritarrei, bertaratzeko deia luzatu zieten.

Manifestazioa, eguerdiko hamabietan irtegan da Triangulo plazatik. San Frantzisko ibilbidean gora joango da ondoren, eta

↓ **Datua**

28

■ **Tolosaldeko udal guztiak bat eginik.** Eskualdeko udalerri guztietako hautetsiek eman zitoten atxikimendua manifestuari. Udal guztiek ez zuten ordezkari-tzarik izan agerraldian. Hogeita hiru herrietatik, gutxienez ordezkari bat izan zen, horietako 21, alkateak. Alegia, Altxo, Asteasu, Ibarra eta Amasa-Villabona izan ziren ordezkari kopuru gehien eraman zituzten herriak.

Nafarroa etorbideetik barrena, Ibarrarako sarbidean dagoen biribilgunera jaitsiko da. Handik, Plaza Zaharrera abiatuko da. Bertan emango zaio amaiera manifestazioari ekitaldi baten bitartez. Ibilbide osoan zehar, manifestazioaren buruan, ikurrina erraldoi bat daramatela joango dira udaletako ordezkariak.

Zozketako sariduna

Bestalde, Amasa-Villabonako inposizioaren aurkako eta ikurrinaren aldeko herri ekimenak antolatutako zozketaren zerbaki sari-duna, 430a izan da. Irabazleak, Euskal Herriko produktuez osaturiko saskia jasoko du, beraz, jabeak kontaktuan lehenbailehen jarri beharko du 619 529 164 telefono zenbakira deituz edo baiehbillabona@gmail.com helbidera idatziz.

→ Laburrak

Auzo konpostaren inguruko bilera, gaur

TOLOSA › Auzo konposta hizpide izango duen bilera egingo dute, gaur, 19:00etan, Larra-mendi auzoan. Interesa duen auzotar orok parte hartzeko aukera izango du, Arkaute etxean. Beste auzoetan egin den moduan, Larra-mendi ere auzo konposta martxan jartzeko asmoa du udalak.

Festa batzordearen batzarra, bihar, 19:00etan

IRURA › Ostegunean, hilak 7, Irurako festa batzordeak bilera egingo du datozen ekitaldiei begira ideia bilketa egin asmoz. Batik bat, Korrika edo kirol astearen baitan antolatuko diren ekitaldien inguruan arituko dira. Batzarra, udaletxeko aretoan egingo da, 19.00etan.

Kataluniako sukaldaritza modua lantzeko ikastaroa

BIDEGOIAN › Kataluniako eta Euskal Herriko sukaldaritzako moduak jorratuko dituen sukaldaritzako ikastaroa antolatu du Kukuri kultur elkarteak datorren asterako. Martxoaren 14ean etan 21ean izango dira hitzordua, 18:00etatik 21:00etara. Ostiral honetan amaituko da izen emate epea. Interesatuak, 657 795 557 telefono zenbakira deitu dezakete. Ikastaroaren prezioa 10 eurokoa da.

Jaietako playbackean apuntatzeko epea, zabalik

ANOETA › Ireki dute, maiatzaren 31n, herriko festen baitan ospatzen den playbackean izena emateko epea. Interesatuak, martxoaren 20a baino lehen apuntatu beharko dute udaletxean, liburutegian edo Jon Ander Odriozolaren dendan. Taldekideen erdia baino gehiagok, herrikoak behar dute izan, eta euskarazko kantua erabiltzera animatzen dute udaletik. Gutxienez, bost taldek eman beharko dute izena, besterik ez bada, bertan behera geratuko baita.

Trasteleku bat eta zortzi garaje alokatzeko aukera

ANOETA › Udal jabetzakoak diren zortzi garaje ireki alokatzeko deialdia zabaldu du udalak. Iturtxulo kaleko 4 eta 6 zenbakian kokaturik daude. Kale berdineko 2. zenbakian trasteleku bat ere errentan hartzeko aukera emango du. Agiriak udaleko bulegoan aurkeztu beharko dira apirilaren 2a baino lehen.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Mahaian Galder Azkue Amasa-Villabonako alkatea eta Ainhoa Ugalde Irurako alkatea eta Tolosaldeko Zabor Mankomunitateko lehendakaria. Hauen atzean, zutik ezkerretik eskuinera, Aitor Sarasua Zizurkilgo zinegotzia; Unai Iraola Alegiako alkatea; Rosa Arregi Amasa-Villabonako zinegotzia; Jose Mari Luengo Zizurkilgo alkatea eta Pello Estanga Anoetako alkatea. E. MAIZ

Komunikabideetan oihartzun handia izan du agerraldiak

➔ Orendainen Tolosaldeko bost herritako udal ordezkariak elkartu ziren atzo, mankomunitateko arduradun nagusia buru zutela: Ainhoa Ugalde Irurako alkatea eta Tolosaldeko Zabor Mankomunitateko lehendakaria.

Prentsaren aurrean agerraldia egin zuten, eta bertan igorritako mezuak oihartzun handia izan zuten, bai sare sozialetan, eta baita komunikabide tradizionaletan ere.

Eskualdeko ohiko komunikabideekin batera, Berria eta EITBko kazetariak Orendainen izan ziren, eta arratsaldean, Espainiako EFE berri agentzia izan zen Orendainen gertatua komunikabide guztien artean zabaldu zuena.

bat plazaratu zuten: «Hori guztia lortzeko aukera badugu, zergatik ez diogu ekin behar atez atekoari?».

Errauste planta zuzenean aipatu ez baldin badute ere, beste eredu baten aldeko apustua aldarrikatu dute mankomunitateko eta eskualdeko udal ordezkariak: «Pertsonen osasuna kaltetu gabe, ingurumena zaindu eta ekonomikoki merkeago izango den eredu bat behar dugu gure herrietan».

Herritarren konpromisoa

Hondakinak herritar guztiak sortzen dituztenez, konponbidea den arduraren dela azaldu zuten atzokoan. Atez ateko bilketak herritarren konpromisoa eta parte hartzea eskatzen dituela ere gaineratu zuten: «Martxoan zehar herri hauetan bilketa sistema berria azaldu eta ekarpenak egiteko aukera izango dugu bilera ezberdinetan. Eta hemendik aurrera nahi diegu herritarrei aktiboki parte har dezaten antolatutako bileretan sistema denon artean egokitze. Denon artean eginda, alde ederra delako».

Alegia, Irura, Anoeta, Villabona eta Zizurkilgo udal aurretik hasiko dira, beraz, atez-ate hondakinak biltzen. Udal ordezkariak esanetan, ordura arte dagoen denbora, «denon artean ekarpenak egin eta ahal den sistema eraginkorra lortzeko aprobetxatu nahi dugu».

Eskualdeko bost herri horietako herritarrek aurretik duten erronka polita dela ere esan zuten. Tolosaldea zero zabor bidean dagoela aldarrikatu nahi izan zuten azkenik, eta orain arte egindako pausok, atzo aurkeztutako urrats berriei, jarraipena dute la esan zuten: «Denon artean lortuko dugu. Denon artean, alde ederra egingo dugu» esanaz amaitu zuten agerraldia mankomunitateko eta udaletako ordezkariak.

Zero zabor eskualdea bilakatzeko asmoa berretsi du mankomunitateak

Anoeta, Irura, Alegia, Amasa-Villabona eta Zizurkilgo udal aurretik

Asier Imaz

Tolosaldeko Zabor Mankomunitateak zero zabor eskualde izateko bidean urrats berriak iragaritzen du. Azken erabakia, atzo bertan esplikatu zuten: «Anoeta, Irura, Alegia, Amasa-Villabona eta Zizurkilgo udal aurretik».

Ainhoa Ugalde Irurako alkatea eta mankomunitateko lehendakaria, eta Galder Azkue Amasa-Villabonako alkatea egin zuten iragarpena atzo Orendainen, udalerririk guztietako arduradun politikoekin babesarekin. Hiri hondakinaren arazoa larria dela esan zuten, eta ingurumen krisia jasanezina: «Hondakin asko sortu eta nahastuta botatzen ditugulako zabortegeak gainezka daude, natur baldi bideak edo lehengaiak agortzen ari dira, eta kutsaduraren eraginez gure osasuna kalte- eta ingurumena arrisku bizian jarri dugu».

Zero Zabor helburura iristeko, hondakinak bereiztea eta bilketa selektiboa ahalik eta handiena izatea lehen urratsak direla azaldu zuten: «Argi dago zenbat eta gehiago birziklatu, orduan eta gutxiago dagoela zabortegea edo eraustera bidaltzeko. Beraz, %80 edo %90 birziklatze tasa batera iristea izan behar du gure helburua, eta aldi berean, hondakinaren kopurua gutxitzean ere pentsatu behar da».

Orendainen bidea hartu dute Oresa eta Elduainek; hurrengo Altxo izango da

Amasa-Villabonan, Iruran, Anoetan, Alegian eta Zizurkilgo %34 birziklatzen da

Mankomunitateko ordezkariaren esanetan, maila hauetara iristeko, hondakinaren inguruan ohitura eta ikuspegi aldaketa beharrezkoa izango da, baina helmugak merezi duelakoan daude, bide horretan «ziurtasunez» doazela diote: «Eskualdean, herri asko dira zero zabor bidean pausok eman dituztenak, eta jada

bilketa sistema berria martxan duten herriak ere badira».

Horieta bat Orendain da, eta atzo, Alegialdeko herri horretan agerraldia egin izana, kasualitatea ez zela azaldu zuten mankomunitateak: «Orain dela lau hilabete, Orendain, lehenengo zero zabor herri bihurtu zen, eta geroztik jasotako birziklatze datuek erakutsi dutenez, bide onetik ari gara. Bilketa eredu berriak ezarriaz jarraitu dute Oresa eta Elduainek ere, eta helburu berarekin, laster Altxo ere zero zabor herri izendatzeko moduan izango gara».

Konpostaren alde jarri dituzten ekimenak ere azpimarratu nahi izan zituzten mankomunitateak: «Modu horretan, organikoaren tratamendua herri bakoitzak bere kudeaketaren gain hartzeko urratsak ematen ari gara». Birziklapena ahalik eta kopuru altuenetara eramateko ereduak garatzen jarraitzeko konpromisoa hartu ondoren, eskualdean oraindik ere pauso asko emateko dituztela onartu zuten mankomunitateko ordezkariak.

Atez ateko bilketa

Mankomunitatearen esanetan oraindik urrats asko daude emateko, eta horietako bat, edo bost,

atzo iragarri zituzten: «Orain dela urtebete emandako hitza betetzera gatz haren gauden bost herriak; Amasa-Villabona, Zizurkil, Anoeta, Irura eta Alegiak atez ateko bilketa sistema jarriko dugu gure herrietan, ekonomia, iraunkortasuna eta ongizate irizpideei jarraiki».

Mankomunitateko eta udal ordezkariaren esanetan, gaur egun ezagutzen diren bilketa sistemen artean «eraginkorra» eta

Atez ateko bilketarekin %80 inguru birziklatzen dela dio mankomunitateak

Martxoan zehar atez ateko bilketa azaldu eta ekarpenak biltzen hasiko dira

«emaitzarik onenak ematen dituen» atez ateko hondakin bilketa sistema da: «Bost herri hauetan, gaur egun, %34 azpitik birziklatzen da, eta bosgarren edukiontziaekin ikusirik dago zenbatekoa ez dela %45etik gora igoz. Aldiz, atez atekoarekin %80tik gora birziklatzen da». Datu hauek eskuetan, galdera

Merkatu librea shock doktrinarekin uztartuko duen dokumentala ikusgai


Tolosaldeko M15-k antolatatu du jarduera; astelehenero elkartzen dira Tolosako kultur etxean

Itzea Urkizu Tolosa

«Finean, neoliberalismo politikoa da *La doctrina del Shock* dokumentalak islatuko duena». Hala azaldu du, Tolosaldeko 15M mugimenduko Marijo Urizar ordezkariak. Filmaren proiektzioa eta eztabaida izango dira, bihar, Tolosako kultur etxean, 19:00etatik aurrera.

Naomi Klein kazetari kanadiarrak 2007an argitaratu zuen *La doctrina del shock*; liburua oinarri hartuz buruturikoa da, izen bereko dokumentala, eta 2009an Michael Winterbottom eta Mat Whitecross-ek osatu zuten.

Marijo Urizarrek proiektzioa ikusi ahal izango denaren nondik norakoak azaldu ditu: «Amerikar Estatu Batuetan zenbait esperimendu egin zituzten 70eko hamarkadan, herritarrei lobotomiak-eta egiteko; hitz batean, jendeak bere gisara ez pentsatu ahal izateko. Liburuan zein dokumentalean, gaur egun ere gauza bera gertatzen ari dela esaten dute, jendea ekonomikoki deuseztatze-ko helburuz. Herritarrek erreakziorik ez izatea litzateke nahia. Fi-



Naomi Klein kazetariaren liburuan oinarrituriko filma da. HITZA

nean, neoliberalismo politikoa da».

Gaur egungo egoera hizpide

«Egungo egoera oso txarra denez, interesgarria iruditu zaigu gai hau jorratzea», dio Urizarrek. Tolosaldeko 15M mugimenduko kideek antolatu dute, izan ere, jarduera.

Astelehena izaten da, taldearen bilerak egiteko eguna, eta eskualde osoko kideak biltzen dira; hasieran kalean burutzen zituzten bilkurak, Trianguloan nahiz Zerkausian, baina neguan kultur etxean hartzen dute aterpe. «Egia esan, jende gutxi elkartzen gara, normalean, bost lagun inguru; gure bilkurak, ordea, irekiak

dira», nabarmendu du Marijo Urizarrek. Batzar hauetan, egungo egoera hizpide izaten dute, eta auzi jakin batzuetan parte har dezaketela erabakiz gero, horretarako antolatzen dira: «Barakaldon Amaia Egañak bere buruaz beste egin zuenean, esaterako, mobilizazioak antolatu genituen, eta Trianguloan nahiz banketxeen aurrean jarri ginen, egoera salatu».

Jendearen erantzunari dagozkionez, «zenbaitek beldurra dutela dirudi, edo ez zaie iruditzen euren zerbait lor dezaketenik», hala



Zenbait herritarrek beldurra dutela dirudi, edo ez zaie iruditzen zerbait lor dezaketenik»

MARIJO URIZAR
Tolosaldeko 15M mugimenduko kidea

azaldu du Urizarrek. Honen hari-ra, Tolosaldeko 15M mugimendua helburu berri bat lortzeko bidean da: Tolosaldeko Stop Kaleratzeak plataforma sortu nahi dute. Datorren martxoaren 14an antolatuko dute bilera, Bonbernean, eta Donostiako Stop Kaleratzea plataformako kideak bertaratuko dira, euren esperientziak kontatzera; deialdiaren ordua datozen egunotan zehaztuko dute arduradunek.

Koloneko minbiziaren prebentziorako hitzaldi gastronomikoa

Tolosako Sukalde elkarteak izango da saioa, eta izen ematea doakoa da, lekuak bete bitarte

I. Urkizu Tolosa

Minbiziaren aurkako Gipuzkoako elkarteak eta Basque Culinary Center-ek bat egin dute, koloneko minbiziaren prebentziora begirako kanpainan. Egitasmo honen barruan, osasuna eta gastronomia uztartuko dituen hitzaldia izango da Tolosako Sukalde elkarteak, datorren martxoaren 12an, 19:00etan.

Ekitaldian Teresa Gaztañaga doktorea izango da, alde batetik, eta Basque Culinary Center-eko sukaldari bat bestetik. Bertaruekin batera osatuko dute saioa, medikuaren hitzaldia menu osasuntsu baten prestakuntzarekin nahiz azalpenekin uztartuz. Aipatzekoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko gizon-emakumei gehien eragiten dien minbizia dela kolonekoa, eta horregatik eman diote garrantzia.

Jardueran parte hartzeko 50 leku daude, eta izen ematea doakoa izango da; 943 65 21 43 telefono zenbakira deitu besterik ez da egin behar, parte hartzeko.

Irudia >



UZTURRERA ELKARTASUNEZ

Gaixotasun arraroak dituzten haurren aldeko Gure Nahia Elkartasuna Gipuzkoako elkarteak *Urte bat hamabi gailur* kanpainari ekin dio. Hain zuzen ere, Uzturre izan da igo duten lehendabizikoa. Ekimen honekin, eta gaixotasun arraroak dituztenen aldeko eguna igaro berri den honetan, elkarteak Tolosako eta inguruko herritarrei, edozer laguntza edo informazio emateko prest daudela adierazi nahi izan die. HITZA

Irudia >



TOLOSAKO ARROPA PALESTINAN

Jerusalem ekialdeko Silwan auzo palestinarrean bizi dira irudiko haurrak, eta euren etxeetatik kaleratuak izateko mehatxupean bizi dira; etxeak, gainera, eraitsi egin nahi dizkiete. Askok arazo psikologikoak dituztela nabarmendu du Jesus Artetxe tolosarrak, eta beren gurasoak ere egoera tamalgarrian bizi direla. Irudian duten arropa, baloiak eta material guztia Tolosatik eramandakoa da. HITZA

Alegiako gaztetxean musikarekin ekingo diote udaberriko denboraldiari

25. urteurrenari jarraipena eman nahi diote belaunaldi desberdinen ekarpenari atek zabalduz

Asier Imaz Alegia

Zuloak eta Surfín Kaos musika taldeek kontzertua eskainiko dute Alegiako gaztetxean, martxoaren 15ean. Sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai, zazpi eurotan. Udaberriko denboraldiari modu horretan emango diote hasiera Alegiako gaztetxean. Ondoren, herriko jaiak iritsi bitarte, hilabetean ekitaldiren bat egitea gustatuko litzaieke: hitzaldiak, argazki erakusketak, ikastaroak... antolatzeko asmoa dituzte.

Asmoak gauzatzen hilaren 15ean hasiko dira, aipatu kontzertuarekin: «Berez, martxoaren 8an egin nahi genuen, Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, baina taldeek ezin zuten, atzeratu beharrean izan gara», diote gaztetxetik. Surfín Kaos taldeko gitarra ezaguna zuten, berearekin hasi ziren harremanetan.

Ondoren, Gose taldearen atzetik ibili ziren, «baina oraingo areto eta antzeko eszenatokietan mugitzen dabilta Gosekoak, eta gaztetxeetan aurrerago hasiko dira», gaineratu dute. Tartean Fermin Muguruzak sustatutako proiektua Alegiara ekartzeko aukera sortu zen, eta Zuloak taldeari ezezkoa esatea zaila denez, karte-la osaturik gelditu zen.

Martxoaren 15ean gaztetxeko atekak 22:30ean zabalduko dira. Ondoren musikaren txanda izango da, Surfín Kaos-en eta Zuloak-en eskutik.

Surfín Kaos hiruko donostiarra *Goizalde surrealista* diskoarekin etorriko da Alegiara, rock&roll-a, izerdia eta taula gaineko jarrerarekin musika festa osatuz. Zuloak taldea, aldiz, film dokumental baten aitzakian sortutako taldea da, baina pantailatik zuzenokora jauzi sendoa egina dute, eta azken hilabeteetan hara eta hona dabilta, gelditu gabe.

25. urteurrenaren jarraipena
Alegiako gaztetxeak 2012ko abenduan 25 urte bete zituen. Ospakizun gehienak azaroan, abenduan eta urtarrilean egin zituzten, baina ez zen dena hor amaitu, filoso-



Kontzertuaren kartela. HITZA

fia berri bat martxan jarri baituzten. Gaztetxetik pasatuko jendearen artean ospatu izan zuten 25. urteurrena, dinamika bat martxan jarri. Lehen ibilitakoek eta oraingoek, gauzak sortu eta ekarpenak egiteko aukera zuten dinamika horri jarraipena eman eta udaberriko egitasmoa gauzatzen ari dira une honetan, belaunaldi desberdinen elkarlanarekin. Fruituak eta deialdiak zuzenean jarraitzeko, <http://alegikogaztetxea.txintzarriera.com> helbidean sartzea nahikoa da.

Manu Azkarateren helegitea atzera botako dute Parisen

Espainiako justiziaren eskariaren aurka borrokan jarraituko duela esan du tolosarrak

A. Imaz Tolosa

Manu Azkarateren aurkako estradizio eskariak aurrera jarraitzen du. Paueko epaitegiak Espainiaratzearen aldeko ebazpena eman eta gero, tolosarrak Pariseko epaitegira jo zuten. Bertan Azkaratek jarritako helegitea aztertzen ari dira. Tolosarraren inguruak iturrien arabera, helegitea atzera botako dute, eta ofizialki 15 egun edo hilabete barru jakingo

du Azkaratek Pariseko epaitegien erabaki hori. Pariseko epaitegien erabakiari helegite berri bat jarriko dio Azkaratek, estradizio eskariaren aurka borrokan jarraitzeko asmoa baitu preso ohi tolosarrak. Aurrera begira zer gerta daitekeen azaltzerako garaian, Manu Azkaratek Patxi Segurola du gogoan: «Patxi Segurola euskal herritarra antzeko egoerara dago, eta bere kasuan ere, Pariseko epaitegiak helegitea atzera bota zuen. Ondoren, errekurtsioa jarri zuen, eta ebazpenaren zain jarraitzen du. Hori gertatu zela urtebete eta hilabete pasa dira». Espainiako justiziaren eskaria atzera botatzeko ahalegin guztiak egingo dituela dio Manu Azkaratek.

Korrikaren alde, Loatzok emanaldia eskainiko du

Aduna eta Alegialdeko Korrika batzordeek hainbat ekitaldi antolatu dituzte eragileen babesarekin

A. Imaz

Loatzok musika eskolako ikasleek emanaldia eskainiko dute hilaren 11n, astelehenean, Korrikaren alde. Kontzertua 18:30ean hasiko da Adunako plazan, eta ondoren, argazkia eta merienda egongo dira. AEK euskaltegiak antolatzen duen euskararen aldeko lasterketa hilaren 14an iritsiko da eskualdera, eta Adunan, 15:00etan Korrika Ttikia antolatu du eskolak. Herrira 17:00ak inguru-

ruan iritsiko da Korrika. Bentan, Iñaki Gorostidi hasiko da korrika, Muxkil elkarte ordezkatuz; Zubi Txiki iturrian Txulobikoek hartuko dute; Andretetik kruzean Miren Genuaren txanda izango da, guraso elkartearen izenean; hilerri inguruan, Arantxa Aburuza ezker abertzaleko kideak hartuko du lekuko; Giburuko biribilgunean, eskolako ikasle eta irakasleak izango dira protagonista, eta Uztartzako biribilgunean, udalaren eta gazteen txanda izango da.

Bestalde, Alegialdeko Korrika batzordetik azaldu dutenez, Korrika herriitik igaro ondoren, herriko plazan Zahagiardoa jarriko dute, 21:00etatik aurrera. Herri-tar guztiak gonbidatu dituzte bai korri egitera, eta baita jaira ere.

→ Laburrak

Udaberri Txapelketako partidak, hilaren 8an

ALEGIA ▶ Intxurreko pilotariak Alegiako pilotalekuan partidak jokatuko dituzte hilaren 8an, etzi, 19:00etatik aurrera. Udaberri Txapelketaren barruko lehiak izango dira, eta infantiletan, Intxurrekoek Hernani eta Usurbil izango dituzte aurkari.

Herriko jatetxe-taberna hartzeko lehiaketa

ALBITZUR ▶ Udalak herriko jatetxe-tabernaren lau urteko ustiapena lehiaketa bidez esleitu nahi du. Horretarako baldintza guztiak albitzur.com web orrian zintzilikatu ditu. Eskariak aurkezteko epea martxoaren 11n, astelehenean, amaitzen dela azaldu dute udaletik. Lehiakideek, dokumentazio eta informazio guztia udaletxeko bulego orokorrean aurkeztu beharko dute.

Sexualitate aholkularitza herriko gazteentzat

ALBITZUR ▶ Herriko gazteentzat topaketa ekimena antolatu dute hilaren 15ean, Albizturren bertan. Sexualitate aholkularitza guztiak albitzur.com gazteentzat 18:00etatik aurrera. Dinamizatzaile lanetan Maider Altuna psikologoa ariko da, parte hartzaileek aurkezten dituzten kezka guztiak azaltzeko helburuarekin. Udaletik gazteak ekimenera gonbidatu dituzte.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



21°
9°

GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	21°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaundi
euskara
taldea



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hemialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Inauterietako Argazki Lehiaketa



MOZORROEN ETA PUXIKEN FESTA

Inauterietako Argazki Lehiaketan parte hartuko duten beste bi argazki dira. Goikoa Olatzek bidalia da, eta behekoa, Zigorrek. Azken honek, Asteartitan ateratako argazkia dela azaldu du: «Txaranga-garen jaitsierarekin batera, Beti Alai jatetxeko sukalde parean, lehen solairutik puxika mordo bat

bota zituzten eta han ginen guztiak haiekin jolasean ibiltzeko parada izan genuen, eta argazki hau da honen adibide». Argazki irabazlea, eta beraz, Elketa jatetxean bi lagunentzako otordua irabaziko duen argazkia ostiraleko alean argitaratua izango da. OLATZ / ZIGOR

Agurrak



Urte askoan!

Laiene Iturbe Usabiaga (Irura).
Atzo 2 urte! Zorionak eta muxuak familia guztiaren partetik.

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● agurrak

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Areso.** Hilaren 8an, ostiralean, bukatuko da Aresoko Udalean egur loteak eskatzeko epea. Hiru aukera jarri ditu udalak eskaera egiteko: zutik tokian botatzea 30 eurotan, pista ondora ateratzea 65 euroren truke edo etxe ingurura eramatea 165 eurotan izango litzateke. Loteak, 5,5 tonakoak izanen dira eta aurten Utezar parajeko pago eta haritzekin osatuko dituzte.

■ **Anoeta.** Bertso afari musikatu izango da hilaren 8an, Emakumearen Nazioarteko eguna dela eta. Izena emateko azken eguna da gaur, eta udaletxean, liburategian edo kiroldegian eman beharko da.

■ **Belauntza.** Emakumeen Nazioarteko egunean afaria egingo dute. Izena ematea herriko tabernako arduradunari deituta egingo da, 616 82 37 07 telefono zenbakira deituz. Bihar da horretarako azken eguna.

■ **Berastegi.** Emakumeen arteko herriko kirolak egingo dituzte hilaren 8an, ostiralean. Bihar izango da izena emateko azken eguna, ohiko lekuetan.

■ **Tolosa.** Auzo konpostaren inguruko bilera izango da, gaur,

19:00etan, Larramendi auzoan. Interesa duten auzotarrek parte hartzeko aukera izango dute, Arkaute etxean.

■ **Bidegoian.** Hilaren 14ean eta 21ean, sukaldaritza ikastaroa egingo dute Olazal jatetxeko sukaldariarekin. Ostirala da izena emateko azken eguna, eta 10 euro ordaindu beharko da. Izena, 657 795 557 telefono zenbakira deituz eman behar da.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Salam. Beste kultura batzuei irekitako leihoa erakusketak ikusgai dago, Aranburu jau-regian.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Morant, R. Zabalaretta lorategiak kalea, 1. Telefonoa: 943 67 38 49. Gauekoa: Olarreaga, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar Kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Egin HITZAREN HARPIDEDUN
otsailaren 1etik
martxoaren 31ra arte,
ETA JASO

EKAIN
sagardoa
6 botilako
kaxa bana

Harpidedun egiten diren guztien artean
Orduñako Aisia
hotelean,
bi pertsonarentzako
asteburu
baterako
egonaldia
ZOKATUKO
DUGU

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza